

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **2017ko diru-laguntzak, irabazi asmorik gabeko bertoko elkarteek jarduerak gauza ditzaten hezkuntza, berdintasun eta gazteriaren arloan**

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko abuztuaren 4an hartutako erabakiaren bidez onartu dira irabazi-asmorik gabeko bertoko elkarteei diru-laguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak, 2017an hezkuntzaren, berdintasunaren edota gazteriaren arloetan jarduerak gauza ditzaten.

#### OINARRI ARAUTZAILEAK

##### **LEHENENGOA. Deialdiaren xedea eta helburua**

Deialdi honen bidez arautzen dira Laudio Udalak Hezkuntza, Berdintasuna eta Gazteria Arloaren bitartez 2017 urtean emango dituen diru-laguntzak, irabazi asmorik gabeko elkarteek hezkuntza, berdintasuna eta gazteria arloetan bideratzen dituzten ekimenak finantzatzeko, betiere, ekimenak herrian bertan gauzatzen badira edota udalerrirako interesgarriak badira. Honela mamituko dira diru-laguntzak:

- Gazteentzako ekimenak gauzatzen dituzten herriko elkarteentzako diru-laguntzak, 800,00 euro arte, 0800-3371-481.00 partidako gastu-kredituaren kontura.
- Aukera-berdintasunaren arloan ekimenak gauzatzen dituzten herriko elkarteentzako diru-laguntzak, 10.100,00 euro arte, 0800-3232-481.00 partidako gastu-kredituaren kontura.
- Hezkuntza arloan ekimenak gauzatzen dituzten herriko elkarteentzako diru-laguntzak, 3.450,00 euro arte, 0800-3231-481.01 partidako gastu-kredituaren kontura.

Diru-laguntzak lege eta arau hauetan xedatutakoarekin bat emango dira: otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei eta Transferentziei buruzkoa, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuz onartutako lege horren araudia, tokiko udalbatzen zerbitzuen araudia eta ezargarrria izan daitekeen gainerako legedia.

Diru-laguntza horietakoren bat osorik edo zatiren batean eman gabe geratuko balitz, txosten teknikoa eman ondoren, esleitu gabeko zenbatekoak deialdi honetan aurreikusitako gainerako helburu eta partidetara bidera ditzake Udalak.

##### **BIGARRENA. Erakunde onuradunak**

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzetara aurkeztu ahal izango dira irabazi-asmorik ez duten eta hezkuntza, berdintasuna eta gazteriaren arloan heziketa, informazio, prebentzio, arreta edota gizarteratze ekimenak gauzatzen dituzten elkarteak, betiere, betebeharrak hauek betetzen badituzte:

- Legez eratuta eta Eusko Jaurlaritzako Elkarten Erregistroan inskribatuta egotea.
- Botere publikoen edo herriko aginteen kontrolpean jartzea euren egitarau eta aurrekontuak.
- Bermatzea badutela barne demokrazia parekidea gobernu organoen osaeran eta funtzionamenduan.

**HIRUGARRENA. Onuradunen betebeharrak**

Onuradun izan litezkeen elkarteek ondoko betebeharrak izango dituzte:

- Laguntza emateko oinarria den jarduera eta ekimena gauzatzea, Udalaren aurrean egiaztatuz laguntza emateko ezarri zaizkion betebeharrak eta baldintzak bete direla.
- Emandako diru-laguntzari dagokionez beharrezko egiaztatze-jardunak onartzea.
- Genero ikuspegia txertatzea dokumentuetan eta egingo diren ekintzetan eta bereizkeria elementuak saihestea hizkuntzaren eta irudien erabileran.
- Aurkeztea gauzatutako jardueren memoria, finantzatutako jardueraren diru-sarreraren eta gastuen likidazio-kitapenarekin batera, hala nola egindako gastuaren egiaztagiria ere (jatorrizko ordainagiria) onartutako diru-laguntzaren zenbateko berdinerara arte.
- Jakinaraztea Udalari helburu berbererako beste laguntza batzuk lortu izana, ezagutu bezain laster eta jasotako funtsei emandako aplikazioaren justifikazioa baino lehen.
- Eskura izatea kontu liburuak, erregistro diligentziatuak eta gainerako dokumentuak, kasuan kasuko onuradunari aplikagarria zaion sektoreko legeetan ezarri diren baldintzetan, eta gordetzea jasotako funtsen justifikazio dokumentuak egiaztatze- eta kontrol-eskumenak era egokian egikaritzea eta gauzatzea bermatzeko, horiek aurkeztea eska daitezkeelako.
- Publizitatea ematea Udalak diruz lagundutako ekintzaren finantziarioari, karteletan eta publizitate-material guztietan testu hau txertatuta: Babeslea: Audio Udala / Patrocina: Ayuntamiento de Llodio.

**LAUGARRENA. Diruz lagun daitezkeen jarduerak eta gastuak**

Jarduera hauek lagundu ahalko dira diruz:

- Erakunde eskatzaileak sustatzen dituen izaera ludikodun edo aisialdiko jarduerak, besteak beste, oroitzapen ospakizunak, topaldiak, mundu egunak etabar.
- Dibulgazio eta sentsibilizazio-jarduerak, besteak beste, hitzaldiak, propaganda eta publizitatea, erakusketak eta bestelakoak.
- Erakunde eskatzaileak sustatzen dituen hezkuntza edota prestakuntza-jarduerak.
- Besteei edota nork bere buruari laguntzeko jarduerak.
- Prebentzio, terapia edota errehabilitazio-jarduerak.

Jarduera zehatzen barruan, jardueraren gauzatzearekin zuzenean erlazionatuta dauden gastuak baino ezingo dira diruz lagundu: material suntsikorra, bulegoko materiala, jarduerarekin lotura zuzena duten hornidurak etabar.

Ezin izango dira diruz lagundu elkarteek gastu arruntak, esaterako, lokalen alokairu-gastuak, hornidura-gastuak (argindarra, ura, telefonoa, gasa), aseguru primak, konponketak etabar.

Eskatutako jarduera zehatzen baten prestazioarekin zuzenean lotuta daudenean baino ezingo dira langileria gastuak diruz lagundu. Elkarteak berak kontratatutako langileen kasuan, kasuan kasuko jarduera zehatzean emandako denbora-ehunekoa zehazki jaso beharko da diruz laguntzeko.

**BOSGARRENA. Eskaerak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Laguntza hauek lortzeko interesa duten elkarteek bete egin beharko dute beren beregi horretarako eskainitako eskaera inprimaki normaldua (1. eranskina). Horrekin batera dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren -IFZren- kopia eta erakundearen estatutuen fotokopia eta legez eratu eta erregistratuta egotea egiaztatzeko dokumentua (eskaera lehen aldiz eskatzen denean soilik aurkeztu behar da).

- 2017rako aurreikusi diren jardueren egitaraua, barne hartuta:
- Egin nahi diren jarduerekin lortu nahi diren helburuak.
- Aktibitateak gauzatzeko giza baliabideak, baliabide teknikoak eta materialak.
- Jardueraren jasotzaile eta onuradun diren pertsonak eta horien kopurua.
- Jarduera bakoitzerako aurreikusi den lekua, data eta iraupena.
- Diruz laguntzea nahi den jardueren egitaraua gauzatzeko diru-sarrerara eta gastuen aurrekontua xehakatua (2. eranskina).
- Diruz lagundu nahi den egitaraurako beste erakunde publiko edo pribatuei laguntzak eskatu izanari buruzko zinpeko aitorpena (3. eranskina).
- Udalarekin, Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zerga arloko obligazio guztiak ordainduta dauzkala eta egunean dela adierazten duen ziurtagiria.
- Diru-laguntzen itzulerei dagozkien obligazioak egunean izatearen gaineko ziurtagiria.

#### **SEIGARRENA. Aurkezpena eta epea**

Eskaera Herriko etxeko Herritarren Arretarrako Zerbitzuan erregistratuko da. Halaber, onartu egingo dira Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkideko 39/2015 Legean zehaztutako formatan aurkeztutako eskaerak. Dokumentazioa aurkezteko epea: hilabete eta erdi, dialdia eta oinarriak onartu dituen Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak hartu duen erabakiaren laburpena ALHAOn argitaratuta agertu ostean.

#### **ZAZPIGARRENA. Diru-laguntza jaso dezaketen jardueren balorazio-irizpideak**

Diru-laguntzek borondatezko izaera izango dute; beraz, Udalak ez du bere gain hartzen inolako obligaziorik deialdi honetako oinarriak betetzen dituzten eta aurkezten diren eskaera guztiei diru-laguntza emateko eta deialdia hutsik, eman gabe utzi ahalko du.

Laguntzak lehia irekiaren araubidean emango dira eta horien haztapena egiteko eta laguntzak emateko erabiliko diren irizpideak objektiboak izango dira, argitasuna, lehia irekia, berdintasuna eta bereizkeriarik ezaren printzipioak bete daitezzen. Hauek izango dira irizpideak:

- Erakunderen ezaugarrien arabera:
  - Jarraitasuna, egonkortasuna eta fidagarritasuna hezkuntzaren, berdintasunaren eta gazte-riaren arloan: 1 puntu era eraginkorrean eta iraunkorrean gauzaturako jarduera urte bakoitzeko. Gehienez ere: 4 urte. Gehienez ere: 4 puntu.
  - Pertsona onuradunen kopurua eta askotarikotasuna. 2 puntu, zabalkunde eta sentsibilizazio-ekintzen 10 pertsona onuraduneko. Gehienez ere: 6 puntu.
  - Elkartek egindako ahalegina hala antolakuntzan, nola autofinantzaketan. Gehienez ere: 4 puntu.
  - Elkartearen gizarte proiektzioa, beste elkarte, erakunde eta eragile dinamizatzaile sozial eta kulturalekin duen elkarlana. Gehienez ere: 6 puntu.
  - Euskara bultzatzearen aldeko jarrera. Gehienez ere: 6 puntu.
  - Kontuan izatea berdintasun irizpidea, emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu eta sustatzea, bereziki, emakumeen eskubideak bermatzen diren neurrian. Gehienez ere: 10 puntu.
  - Kultura-artekotasunaren aldeko jarrera. Gehienez ere: 8 puntu.
  - Belaunaldi ezberdinen arteko jarraitutasuna eta transmisioa bermatzen dituzten ezau-garriak eta elkartearen biziraupena bermatzen saiatzekoak, bereziki, euren lana udalerrian hedatzen eta zabaltzen dutenak (gizarteratzea, belaunaldi berrien inplikazio maila etabar). Gehienez ere: 4 puntu.

– Berariaz baloratuko zaie ingurumenarekiko ikuspegia, baliabide, bitarteko eta proiektu ezberdinetan berrerabilera eta birziklatzearen irizpidea kontuan hartzen duten elkarteei. Gehienez ere: 2 puntu.

– Jarduera programa (helburuak, edukiak, metodologia, baliabideak eta kalitate teknikoak). Gehienez ere: 10 puntu.

– Jardueraren ezaugarrien arabera:

– Ludikoa edota aisialdikoa (oroitzapen ospakizunak, txangoak etabar). Gehienez ere: 10 puntu.

– Kultura-zabalkunde eta sentsibilizazioa (hitzaldiak, jardunaldiak, propaganda eta publizitateak). Gehienez ere: 15 puntu.

– Prestakuntza eta laguntzako jarduerak (topaldiak, jardunaldiak, ikastaroak, eskolak, tailerrak etabar). Gehienez ere: 20 puntu.

Eman beharreko diru-laguntzaren azken zenbatekoa proportzionalki zehaztuko da jarduera bakoitzaren puntuazioaren arabera. Laguntzak ez du gaindituko aurkeztutako aurrekontuaren defizitaren ehuneko 90.

#### **ZORTZIGARRENA. Kudeaketa, ebazpena eta jakinarazpena**

Hezkuntza, Berdintasuna eta Gazteria Arloko langile teknikoz osatutako ebaluazio batzorde batek aztertu eta baloratuko ditu aurkeztutako jarduera programak, aurkeztutako eskaerak elkarrekin alderatuta, horien arteko lehentasun-hurrenkera ebatzi ahal izateko, gorago zehaztutako ebaluazio eta haztapan irizpideen arabera. Amaitutakoan balorazio akta bat egingo du, bertan barne hartuta ondoko zehaztasun hauek: onartutako eta ukatutako eskaerak, eman beharreko gehieneko zenbatekoa eta eskaera bakoitzerako proposatutako zenbatekoa.

Elkarte jakin batek aurkeztutako dokumentazioan irregulartasunen bat edo akatsen bat antzematen bada, elkarteak hamabost eguneko epea edukiko du irregulartasuna edo akatsa konpondu ahal izateko, gertaera horren jakinarazpena jasotzen duen biharamunetik hasita.

Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak hartuko du dagokion erabakia, aurreikusitako diru-laguntzak emateko edo ez emateko, Ebaluazio Batzordeak prestatutako proposamenari ajustatua izan beharko dena eta alde zuzenetik Arloko zinegotzi ordezkariak aurkeztuta. Ematearen aldekoa bada, erabakian jasota utziko zaio eskatzaileari diru-laguntza jaso duen ekimenaren izena, onartutako onarritako aurrekontua, laguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko era.

Prozeduraren ebazpena hartu eta jakinarazteko gehieneko epea hilabetekoa izango da, Tokiko Gobernu Batzarrak onartzen duenetik hasita. Epe hori iraungitzen bada inolako ebazpenik jakinarazi gabe, horrek esan nahi izango du eskaera ez dela onartu, administrazioaren isiltasunagatik.

Administrazio-bidea amaituko duten ebazpenak aurkaratzeko aukera dago, betiere, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotako kasu eta moduetan.

Udalak egoki baderitzo, datuak eta azalpenak eskatu ahal izango ditu aurkeztutako dokumentazioari buruz, euren azterketa eta balioespina osatzeko, eta ez badira arin eta premiaz entregatzen, espedientearen atzeratzea, berandutzea eta, are gehiago, horren artxiboa ere erakar lezakete.

Deialdi honen eta eratorritako administrazio egintzen aurka egiteko aukera dago, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatuta dakarenarekin bat.

Elkarteak Udalari jakinarazi beharko dio jarduera baten gauzatzea edo aurrekontua eraldatzen duen edozein aldaketa eta Udalak hilabeteko epean eta Tokiko Gobernu Batzarraren bidez adieraziko du aldaketa hori onartzen duen ala ez. Berariaz, esanbidez edo era adierazian ebazpenik ez badago, hasierako izaeraz, diru-laguntza eskabidea eta bere aurrekontua ukatu egin dela ulertuko beharko da.

**BEDERATZIGARRENA. Ordaintzeko era**

- Emandako zenbatekoaren ehuneko 80 baiezko erabakia hartzen denean.
- Geratzen den ehuneko 20a behin gastua justifikatu eta erabakian ipinitako baldintzak bete ondoren.

**HAMARGARRENA. Beste diru-laguntzekiko bateragarritasuna**

Laguntza hauek ematea bateragarria izango da bestelako laguntza edo diru-laguntzak lortzearekin. Beste finantzazio bide batzuk dauden edo ez adierazteko zinpeko adierazpenean jasoko da laguntzak zenbatekoak diren eta, behar izanez gero, oraindik erabakitzeke dauden laguntzarik ote dagoen. Lortutako diru-laguntza guztien kopurua jarduerarako onartua dagoen aurrekontua baino handiagoa denean, aurrekontua gainditzen den kopuruan murriztuko da emango den diru-laguntza.

**HAMAIKAGARRENA. Justifikazioa**

Kontu-justifikazioa aurkeztea diru-laguntza jaso duen elkarteak nahitaez bete beharreko egintza da eta bertan jaso eta aurkeztu behar dira diru-laguntzaren xedea bete den ala ez egiaztatu ahal izateko gastuen egiaztagiria, elkartearen ordezkariak erantzukizunez aitortuta.

Edonola ere, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzei buruzkoaren Erregelamendua-ren 75. artikuluan ezarritakoarekin bat, 60.000 eurotik beherako diru-laguntzen kasuan, hau da, diru-laguntza hauen kasuan, informazio hau jasoko duen justifikazio-kontu sinpletua eskatuko da:

a) Diru-sarrera eta gastuen balantzea (4. eranskinaren).

– Diru-sarreraren balantzearen barruan, dagokion zutabearen adieraziko da diruz lagundutako jarduera finantzatu duten udalaz beste erakunde publiko eta pribatuen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria zehaztuta.

– Diruz lagundutako jardueraren gastuen balantzea ere jaso behar da 4. eranskinean, hartzekodunarekin, dokumentuarekin, zenbatekoarekin, jaulkitze datarekin eta ordaintze-datarekin batera. Diru-laguntza aurreikusitako aurrekontu bat oinarri hartuta ematen bada, gertatutako desbideraketak adieraziko dira.

b) Diru-laguntza emateko erabakian ezarritako baldintzak betetzeari buruzko egintzen justifikazio-memoria, gauzatutako egintzak eta lortutako emaitzak adierazita.

c) Erabili gabeko soberakinak geratzen badira, soberakinak eta horietatik eratorritako interesak itzuli izanaren ordaintze-gutuna.

Organo emailea den Tokiko Gobernu Batzarrak proposamena egin ondoren, elkarte onuradunek aurkeztutako egiaztagiria aztertuko ditu ebaluazio batzordeak, diru-laguntza behar bezala erabili dela frogatzeko arrazoizko moduan. Horretarako, batzordeak hautatzen dituen gastu-egiaztagiria eskatu ahalko dizkio onuradunari.

Justifikatzeko fakturen fotokopia konpultsatuak, soilik izango dira baliozkoak egiaztagiri legez, kasua bada gastu hori finantzatua izan dela zati batean beste errekurso edota diru-laguntza batez, Erregelamenduko 73. artikuluan aurreikusitako eran.

Diru-laguntzen erregelamenduaren 75. artikuluan xedatutakoarekin eta oinarri hauekin bat, justifikazio-kontu sinpleturako eskatzen den dokumentazioaz gain, diruz lagundutako gastuak justifikatzeko dokumentu guztiak bidaltzea eskatuko die Udalak zenbatekorik handienak jasotzen dituzten hiru elkartei. Dokumentazio hori aurkeztea ezinbestekoa eta nahitaezkoa izango da eta, emandako diru-laguntza justifikatzeari dagokionez, oinarritzko dokumentaziotzat joko da, horrek dituen administrazio ondorioekin.

Jarduera amaitu ondoren justifikazioa aurkeztuko da eta, edonola ere, 2018ko urtarrilaren 31 baino lehenago.

Hasierako diru-laguntza eman ostean, Tokiko Gobernu Batzarrak horren baldintzak ebatzi eta ezarri ondoren eta behin aztertuta justifikatzeko dokumentazioa, prozedura arintzeko, alkate-udalburuak hartuko ditu hurrengo ebazpenak, bereziki, onuradun elkarteei geratzen den diru-laguntzaren zatia emateari dagozkionak.

Erakunde onuradunek programatutako aktibitateak ez badira osoki betetzen edo benetako kostuak hasiera batean aurrekontuan sartutakoak baino txikiagoak badira, Udalak erregularizatu eta doitu ahal izango du emandako diru-laguntzaren zenbatekoa, ebaluazio batzordeak proposatuta. Horretarako, diru-laguntza emateko erabili ziren irizpide eta mugak aplikatuko dira.

#### **HAMABIGARRENA. Diru-laguntza itzultzeko prozedura eta beharrak ez betetzea**

Kasua bada diru-laguntzen erakunde onuradunen batek ondoren zehazten diren betekizunak ez betetzea, Ebaluaketa Batzordeak proposatuko dio Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrari erabaki dezala galaraztea zor diren diru-zenbatekoak jasotzeko eskubidea eta nahitaez jasotako diru-kopuruak bueltau beharra, diru-laguntza ordaindu zen unetik eta egunetik bertatik hasita sortutako berandutzako korrituekin batera, Laudio Udalaren konturako transferentzia bitartez. Hauexek dira horren pareko ondorioak erakarriko dituzten kasuak:

- Eskaera egitean edo eskatutako dokumentazioan gezurrezko datuak ematea.
- Diruz lagundu den jardueraren helburua osorik edo zati batean ez betetzea.
- Arrazoitzeko eginbeharra osorik edo zati batean ez betetzea.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste laguntza publiko edo pribatuekin batera, gauzatu beharreko jardueraren kostua gaintitzea.
- Ez jakinaraztea Udalari ahalik eta arinen beste diru laguntza publiko edo pribatuak jaso izana, nahiz eta administrazio honek dagokion likidazio kitapena dagoeneko onartua eduki.
- Oro har, oinarri hauetan edo laguntza ematerakoan ezarritako edozein betebeharrak ez betetzea edo kitapenetan aurkeztu beharreko dokumentazioan gabeziak egotea.

Azkenik, ebaluazio batzordeak proposatuko du diru-laguntzaren zati bat itzultzea, jarduera gauzatzean izandako gastuen behin betiko likidazioa eskaera aurkeztu zen unean aurkeztutako gastuen hasierako aurrekontukoak baino txikiagoa denean eta laguntza hori jaso duen elkarteak ez baldin badio alde aurretik laguntza berrikusteko eskatu Udalari. Kasu horretan, Hezkuntza, Berdintasun eta Gazteria Arloak formulatutako proposamenaren bidez, Udalak emandako diru-laguntzaren zenbatekoa doitu ahalko du (betiere, laguntzaren baliokidetasunari eutsita), laguntzak ematean erabilitako irizpide eta mugak aplikatuta. Irizpide horiek aplikatuko dira elkarte onuradunak jasoko duen azken zenbatekoa zehazteko edo, hala badagokio, itzuli behar duen zenbatekoa zehazteko, betiere, proportzionaltasun printzipioari eutsita.

Elkarte onuradunaren administraria edo legez bere ordezkaria dena izango da jasotako diru kopurua eta berandutza korrituak itzultzeko betebeharraren erantzule subsidiarioa.

#### **HAMAHIRUGARRENA. Arau-hausteak eta zigorrak**

Arau-hauste eta zigorren araubideari dagokionez, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 52. artikulutik 69 artikulura bitartean xedatutakoa aplikatuko da.

#### **HAMALAU GARRENA. Gauzatzea, interpretazioa eta zabalkundea**

Deialdi hau gauzatzeko egoki irizten zaizkion erabakiak hartuko ditu Tokiko Gobernu Batzarrak edo alkate-udalburuak. Aipatu diren organoetako batek (Tokiko Gobernu Batzarrak / Alkate-udalburutzak) ebatziko du oinarriaren interpretazioari buruz sor litekeen edozein zalantza.

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, baita udaletxeko iragarki taulan, udalaren webgunean eta ZUIN udal informazio orrian ere, ahal denik eta zabalkunde handiena izan dezan.

Laudio, 2017ko abuztuaren 4a

*Alkate-udalburua*

**JON IÑAKI URKIXO ORUETA**

IRTEERA-ERREGISTROA  
REGISTRO DE SALIDA

Zk/ N.º:

Data/ Fecha

HEZKUNTZA, BERTINTASUN ETA GAZTERIA ARLOA  
ÁREA DE EDUCACION, IGUALDAD Y JUVENTUDTel.: 94 403 4850 / Fax.: 94 403 4752 · [educacion@ludio.eu](mailto:educacion@ludio.eu)  
Herriko Plaza, 01400 Ludio/Llodio (Araba/Alava)  
[www.ludio.eu](http://www.ludio.eu)

**JARDUERAK GAUZATZEKO DIRU-LAGUNTZEN ESKAERA**  
**SOLICITUD DE AYUDAS PARA EL DESARROLLO DE ACTIVIDADES 2017**

**ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DE LA ENTIDAD SOLICITANTE**

ERAKUNDEAREN IZENA / NOMBRE DE LA ENTIDAD		
ERAKUNDEAREN HELBIDEA / DOMICILIO DE LA ENTIDAD	TELEFONO / TELÉFONO	HELBIDE ELEKTRONIKOA / CORREO
ORDEZKARIAREN IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS DE LA PERSONA REPRESENTANTE /	KARGUA ERAKUNDEAN / CARGO EN LA ENTIDAD /	

**ERAKUNDEAREN BALIABIDEAK / RECURSOS DE LA ENTIDAD**

Laudion duen bazkide kopurua / Número de personas asociadas en Llodio: \_\_\_\_\_ €.  
2016 urteko udal diru-laguntza / Subvención del Ayuntamiento en 2016: \_\_\_\_\_ €.

**ZER JARDUERATARAKO ESKATZEN DEN DIRU-LAGUNTZA /  
ACTIVIDADES PARA LAS QUE SE SOLICITA SUBVENCIÓN**

Jardueraren izena Nombre de la Actividad	Diru-sarreraren aurrekontua Presupuesto de Ingresos	Gastuen aurrekontua Presupuesto de Gastos

**DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA / PAGO DE LA SUBVENCIÓN**

BANKUAREN IZENA / BANCO	* * * * * KONTU-ZENBAKIA / CÓDIGO DE CUENTA
DATA, SINADURA ETA ERAKUNDEAREN ZIGILUA / FECHA, FIRMA Y SELLO DE LA ENTIDAD	

1/8

**Laudio****Llodio**HEZKUNTZA, BERDINTASUN ETA GAZTERIA ARLOA  
Tf.: 94 403 4850 / Fax.: 94 403 4752ÁREA DE EDUCACION, IGUALDAD Y JUVENTUD  
[educacion@laudio.eus](mailto:educacion@laudio.eus)Herriko Plaza  
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)**1. ERANSKINA / ANEXO 1****DOKUMENTAZIO OSAGARRIA****ESKAERA AURKEZTERAKOAN**

- Elkartearen NIFaren fotokopia. (lehenengo aldian soilik).
- Elkartearen estatutuen fotokopia eta legez eratu eta erregistratua dagoela ziurtatzen duen dokumentazioaren fotokopia (lehenengo aldian soilik).
- Urtean gauzatzeko aurreikusi diren ekintzen programa, alderdi hauek barne hartuta:
  - Lortu nahi diren helburuak,
  - Jardueren egutegia,
  - Jasotzaile eta ekintzaren onuradun diren pertsonen kopurua.
- Diru-laguntza eskatzeko arrazoi diren ekintzak gauzatzeko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua (2. eranskina).
- Ekintzak aurrera eramateko giza baliabideen, baliabide teknikoaren eta baliabide materialen zehaztapena.
- Beste organismo publiko edo pribatuei eskatutako diru-laguntzei buruzko zinpeko aitortpena. (3. eranskina).
- Zerga-obligazioei eta Gizarte Segurantzaren ordainketei dagokienez, nahiz Udalarekiko betebeharrei dagokienez egunean egotearen egiaztapenak.

**EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA JUSTIFIKATZERAKOAN (2018/01/31 baino lehen):**

- Diruz-lagundutako jarduera programaren sarrera eta gastuen balantzea, beste erakunde publiko edota pribatuetatik jasotako diru-laguntzak (5. eranskina) eta parte-hartzea (6. eranskina) jasota.
- Programako jardueren memoria.
- Sortutako gastuak egiaztatzeko dokumentazioa (emandako diru-laguntzaren zenbateko berdina adierazten duten jatorrizko fakturak) eta ordainketa egin izana justifikatzeko banku-agiriak.

**DOCUMENTACIÓN COMPLEMENTARIA****AL REALIZAR LA SOLICITUD:**

- Fotocopia NIF de Asociación solicitante (Sólo la primera vez).
- Fotocopia de los estatutos de la entidad y documento que acredite estar legalmente constituida y registrada. (A presentar sólo la primera vez que se realice la solicitud).
- Programa de las actividades previstas para el ejercicio en curso, incluyendo:
  - Objetivos que se persiguen,
  - Calendario de las actividades,
  - Personas destinatarias y número de personas beneficiarias.
- Presupuesto de ingresos y gastos de las actividades para cuyo desarrollo se solicita la subvención (Anexo 2).
- Delimitación de recursos humanos, técnicos y materiales para ejecutar las actividades.
- Declaración jurada sobre solicitud de ayuda a otros organismos públicos o privados para el programa objeto de subvención (Anexo 3).
- Certificaciones de estar al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento, Hacienda Foral y Seguridad Social.

**AL JUSTIFICAR LA AYUDA CONCEDIDA (antes del 31/01/2018):**

- Balance de ingresos-gastos del programa de actividades subvencionado, incluyendo otras subvenciones de entidades públicas o privadas (Anexo 5) y de participación (Anexo 6).
- Memoria de actividades, sobre el Programa.
- Justificación documental de los gastos generados (facturas originales, por un montante igual a la subvención aprobada), más justificantes bancarios de pago.



**Laudio****Llodio**HEZKUNTZA, BERDINTASUN ETA GAZTERIA ARLOA  
Tf.: 94 403 4850 / Fax.: 94 403 4752ÁREA DE EDUCACION, IGUALDAD Y JUVENTUD  
[educacion@laudio.eus](mailto:educacion@laudio.eus)Herriko Plaza  
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)**2. ERANSKINA / ANEXO 2****DIRU-SARREREN ETA GASTUEN AURREKONTUA**  
**PRESUPUESTO DE INGRESOS Y GASTOS****Irabazi-asmorik gabeko elkarteek hezkuntzaren, berdintasunaren edota gazteriaren arloan jarduerak gauzatzeko deialdia****Convocatoria de subvenciones a Asociaciones no lucrativas para el desarrollo de actividades en materia de educación, igualdad y juventud (2017)**

JARDUERAREN IZENA NOMBRE DE LA ACTIVIDAD	AURREKONTUA PRESUPUESTO	
	SARRERAK INGRESOS	GASTUAK GASTOS
<b>GUZTIRA / TOTALES</b>		

Laudio/Llodio, 2017/\_\_\_/\_\_\_

**Laudio**



**Llodio**

HEZKUNTZA, BERDINTASUN ETA GAZTERIA ARLOA  
Tf.: 94 403 4850 / Fax.: 94 403 4752

ÁREA DE EDUCACION, IGUALDAD Y JUVENTUD  
[educacion@laudio.eus](mailto:educacion@laudio.eus)

Herriko Plaza  
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)

### **3. ERANSKINA / ANEXO 3**

Sinatzailea: \_\_\_\_\_  
Kargua: \_\_\_\_\_  
Erakundea: \_\_\_\_\_

Quien suscribe, \_\_\_\_\_  
en su calidad de \_\_\_\_\_  
de la Asociación \_\_\_\_\_.

### **AITORTZEN DU / DECLARA**

.....  
elkarkeak ez duela eskatu eta ez duela izapidetze-  
fasean Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru  
Aldundiaren edo beste ezein Administrazio  
Publiko edo entitate publiko edo pribaturen diru-  
laguntzarik Laudioko Udalari aurkeztu dion  
jarduera programa bererako.

Que la Asociación.....  
no tiene solicitada o en trámite de solicitud  
subvenciones al Gobierno Vasco, a la  
Diputación Foral de Álava o a otra  
Administración Pública o ente público o privado,  
para desarrollar el programa de actividades que  
ha presentado al Ayuntamiento de Llodio en  
solicitud de subvención.

Laudio/Llodio 2017/\_\_\_ / \_\_\_

Sin./Fdo. \_\_\_\_\_

Laudio



Llodio

HEZKUNTZA, BERDINTASUN ETA GAZTERIA ARLOA  
Tf.: 94 403 4850 / Fax.: 94 403 4752ÁREA DE EDUCACION, IGUALDAD Y JUVENTUD  
[educacion@laudio.eus](mailto:educacion@laudio.eus)Herriko Plaza  
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)**4. ERANSKINA / ANEXO 4<sup>1</sup>****GASTUAK ETA SARRERAK JUSTIFIKATZEKO 1. ORRIA**  
**HOJA 1 DE JUSTIFICACIÓN DE INGRESOS Y GASTOS**

2018/01/31 baino lehenago aurkeztu beharrekoa / A presentar antes del 31/01/2018

**1. JARDUERAREN IZENA / NOMBRE DE LA ACTIVIDAD n.º 1:**

AURREKONTUA PRESUPUESTO	SARRERAK INGRESOS	DEFIZITA DÉFICIT	ONARTUTAKOIA CONCEDIDO

KONTZEPTUA CONCEPTO <sup>2</sup>	GASTUAK / GASTOS		ERAKUNDE FINANTZATZAILEAK/ ENTIDADES FINANCIADORAS <sup>3</sup>	SARRERAK / INGRESOS	
	Aurrekontua Presupuesto	Likidazioa Liquidación		Aurrekontua Presupuesto	Likidazioa Liquidación
<b>GUZTIRA/ TOTAL</b>					

- Hasierako defizita (Gastuen aurrekontua ken sarreren aurrekontua) / Déficit Inicial (Presupuesto Gastos menos Presupuesto Ingresos): \_\_\_\_\_ €.
- Amaierako defizita (Gastuen likidazioa ken sarreren likidazioa) / Déficit Final (Liquidación Gastos menos Liquidación Ingresos): \_\_\_\_\_ €.

**JUSTIFIKAZIO KONTUAREN XEHETASUNAK / DETALLE DE LA CUENTA JUSTIFICATIVA:**

DOK. DOC. <sup>4</sup>	HARTZEKODUNA ACREEDOR <sup>5</sup>	ZENBATEKOA IMPORTE	Jaulkitze data Fecha emisión	Ordainketa data Fecha pago

Laudio/Llodio, 2017/\_\_\_/\_\_\_

<sup>1</sup> 4. eranskina 2. eranskinarekin lotuta dago, diru-laguntza eskatzean aurkeztutako sarreren eta gastuen aurrekontuari buruzkoarekin. / El Anexo 4 está en relación con el Anexo 2, relativo al Presupuesto de Ingresos y Gastos que en su día se presentó con la solicitud de ayuda

<sup>2</sup> Adierazi gastu zehatzak definitzeko kontzeptuak: jarduera, langileak, materialak, kartelak, janaria etab. / Indicar los conceptos que definen los gastos concretos: Actividad, personal, materiales, cartelería, catering, etc.

<sup>3</sup> Foru Aldundia, bankuak etab. Barne hartu behar da deialdira aurkeztu den elkarteak berak egindako ekarpena. / Diputación Foral, bancos, etc. Incluir la aportación de la propia Asociación concurrente a la convocatoria.

<sup>4</sup> Faktura, nomina etab. / Factura, nómina, etc.

<sup>5</sup> Enpresa hornitzailearen identifikazioa / Identificación de la empresa proveedora.

**Laudio****Llodio**HEZKUNTZA, BEREINTASUN ETA GAZTERIA ARLOA  
Tf.: 94 403 4850 / Fax.: 94 403 4752ÁREA DE EDUCACION, IGUALDAD Y JUVENTUD  
[educacion@audio.eus](mailto:educacion@audio.eus)Herriko Plaza  
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)  
[www.audio.eus](http://www.audio.eus)

**GASTUAK ETA SARRERAK JUSTIFIKATZEKO 2. ORRIA**  
**HOJA 2 DE JUSTIFICACIÓN DE INGRESOS Y GASTOS**

2018/01/31 baino lehenago aurkeztu beharrekoa / A presentar antes del 31/01/2018

**2. JARDUERAREN IZENA / NOMBRE DE LA ACTIVIDAD n.º 2:** \_\_\_\_\_

AURREKONTUA PRESUPUESTO	SARRERAK INGRESOS	DEFIZITA	ONARTUTAKOAK CONCEDIDO

KONTZEPTUA CONCEPTO <sup>6</sup>	GASTUAK / GASTOS		ERAKUNDE FINANTZATZAILEAK/ ENTIDADES FINANCIADORAS <sup>7</sup>	SARRERAK / INGRESOS	
	Aurrekontua Presupuesto	Likidazioa Liquidación		Aurrekontua Presupuesto	Likidazioa Liquidación
<b>GUZTIRA/ TOTAL</b>					

- Hasierako defizita (Gastuen aurrekontua ken sarreren aurrekontua) / Déficit Inicial (Presupuesto Gastos menos Presupuesto Ingresos): \_\_\_\_\_ €.
- Amaierako defizita (Gastuen likidazioa ken sarreren likidazioa) / Déficit Final (Liquidación Gastos menos Liquidación Ingresos): \_\_\_\_\_ €.

**JUSTIFIKAZIO KONTUAREN XEHETASUNAK / DETALLE DE LA CUENTA JUSTIFICATIVA:**

DOK. DOC. <sup>8</sup>	HARTZEKODUNA ACREEDOR <sup>9</sup>	ZENBATEKOA IMPORTE	Jaulkitze data Fecha emisión	Ordainketa data Fecha pago

Laudio/Llodio, 2017/\_\_\_/\_\_\_

<sup>6</sup> Adierazi gastu zehatzak definitzeko kontzeptuak: jarduera, langileak, materialak, kartelak, janaria etab. / Indicar los conceptos que definen los gastos concretos: Actividad, personal, materiales, cartelería, catering, etc.

<sup>7</sup> Foru Aldundia, bankuak etab. Bane hartu behar da deialdira aurkeztu den elkarteak berak egindako ekarpena. / Diputación Foral, bancos, etc. Incluir la aportación de la propia Asociación concurrente a la convocatoria.

<sup>8</sup> Faktura, nomina etab. / Factura, nómina, etc.

<sup>9</sup> Enpresa hornitzailearen identifikazioa / Identificación de la empresa proveedora

Laudio



Llodio

HEZKUNTZA, BERDINTASUN ETA GAZTERIA ARLOA  
Tf.: 94 403 4850 / Fax.: 94 403 4752

ÁREA DE EDUCACION, IGUALDAD Y JUVENTUD  
[educacion@laudio.eus](mailto:educacion@laudio.eus)

Herriko Plaza  
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)

**GASTUAK ETA SARRERAK JUSTIFIKATZEKO 3. ORRIA /**  
**HOJA 1 DE JUSTIFICACIÓN DE INGRESOS Y GASTOS**

2018/01/31 baino lehenago aurkeztu beharrekoa / A presentar antes del 31/01/2018

**3. JARDUERAREN IZENA / NOMBRE DE LA ACTIVIDAD n.º 3:** \_\_\_\_\_

AURREKONTUA PRESUPUESTO	SARRERAK INGRESOS	DEFIZITA	ONARTUTAKOAK CONCEDIDO

KONTZEPTUA CONCEPTO <sup>10</sup>	GASTUAK / GASTOS		ERAKUNDE FINANTZATZAILEAK/ ENTIDADES FINANCIADORAS <sup>11</sup>	SARRERAK / INGRESOS	
	Aurrekontua Presupuesto	Likidazioa Liquidación		Aurrekontua Presupuesto	Likidazioa Liquidación
<b>GUZTIRA/ TOTAL</b>					

- Hasierako defizita (Gastuen aurrekontua ken sarreren aurrekontua) / Déficit Inicial (Presupuesto Gastos menos Presupuesto Ingresos): \_\_\_\_\_ €.
- Amaierako defizita (Gastuen likidazioa ken sarreren likidazioa) / Déficit Final (Liquidación Gastos menos Liquidación Ingresos): \_\_\_\_\_ €.

**JUSTIFIKAZIO KONTUAREN XEHETASUNAK / DETALLE DE LA CUENTA JUSTIFICATIVA:**

DOK. DOC. <sup>12</sup>	HARTZEKODUNA ACREEDOR <sup>13</sup>	ZENBATEKOA IMPORTE	Jaulkitze data Fecha emisión	Ordainketa data Fecha pago

Laudio/Llodio, 2017/ \_\_\_ / \_\_\_

<sup>10</sup> Adierazi gastu zehatzak definitzeko kontzeptuak: jarduera, langileak, materialak, kartelak, janaria etab. / Indicar los conceptos que definen los gastos concretos: Actividad, personal, materiales, cartelería, catering, etc.

<sup>11</sup> Foru Aldundia, bankuak etab. Bame hartu behar da deialdira aurkezten den elkarteak berak egindako ekarpena. / Diputación Foral, bancos, etc. Incluir la aportación de la propia Asociación concurrente a la convocatoria.

<sup>12</sup> Faktura, nomina etab / Factura, nómina, etc.

<sup>13</sup> Enpresa hornitzailearen identifikazioa / Identificación de la empresa proveedora

Laudio



Llodio

HEZKUNTZA, BERDINTASUN ETA GAZTERIA ARLOA  
Tif.: 94 403 4850 / Fax.: 94 403 4752

ÁREA DE EDUCACION, IGUALDAD Y JUVENTUD  
[educacion@laudio.eus](mailto:educacion@laudio.eus)

Herriko Plaza  
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)  
[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)

**5. ERANSKINA**

**JARDUERETAKO PARTE-HARTZAILEEN ORRIA**  
**HOJA DE PARTICIPACIÓN EN LAS ACTIVIDADES**

**2018/01/31 baino lehenago aurkeztu beharrekoa / A presentar antes del 31/01/18**

**Irabazi-asmorik gabeko elkarteek hezkuntzaren, berdintasunaren edota gazteriaren arloan  
jarduerak gauzatzeko deialdia**  
**Convocatoria de subvenciones a Asociaciones no lucrativas para el desarrollo de actividades  
en materia de educación, igualdad y juventud  
(2017)**

JARDUERAREN IZENA NOMBRE DE LA ACTIVIDAD	MOTA TIPO <sup>14</sup>	ZK. N <sup>o</sup> <sup>15</sup>

Laudio/Llodio, 2017/ \_\_\_/ \_\_\_

<sup>14</sup> Adierazi nolakoa den jarduera/ Señalar si se trata de una actividad:

- Jolasak edota aisialdia (oroitzapen ospakizunak, txangoak etab.) /Lúdica y recreativa (conmemoraciones, excursiones, etc.).
- Dibulgazioa eta sentsibilizazioa (hitzaldiak, jardunaldiak, propaganda eta publizitatea) / De divulgación y sensibilización (charlas, jornadas, propaganda y publicidad).
- Besteak edota norbera laguntzeko jarduerak (taldeak, tailerrak, eskolak etab.) / Asistencial y de Auto-apoyo (grupos, escuelas, talleres, etc.)
- Terapia eta errehabilitazioa / Terapéutica y Rehabilitadora

<sup>15</sup> Jardueraren onuradun zuzen diren pertsona kopuru zehatza; txango edo hitzaldi batera batera joan direnak, nork bere buruari laguntzeko talde bateko partaideak, errehabilitazioa edo terapia jasotzen dutenak... / Número exacto de personas beneficiarias directas de la actividad, sean asistentes a una excursión, a una charla, pertenecientes a un grupo de auto-ayuda o receptoras de rehabilitación o terapia.